

VI. INKESTA SOZIOLINGUISTIKOA 2016

10. kronika: **Euskararen herria zenbakitan (1. zatia)**

Kronika honetan Euskal Herri osoko emaitzak agertzen ditugu Ipar Euskal Herria, Nafarroa eta Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE) konparatuz. Inkestek aztertzen duten jendetza 16 urte eta gehiagokoak dira. Taula orotan zenbatzen dugu erreferentziazko jendetza eta gero emaitzak ehunekotan agertzen dira.

1. Hizkuntza gaitasuna

Hizkuntza gaitasuna lurraldeka

| | Iparraldea 250.000 h. | Nafarroa 536.000 h. | EAE 1.864.000 h. | Euskal Herria 2.648.000 h. |
|---------------|--------------------------|------------------------|---------------------|-------------------------------|
| Euskaldunak | % 21 | % 13 | % 34 | % 29 |
| Euskalduntzen | % 9 | % 10 | % 19 | % 16 |
| Erdaldunak | % 70 | % 77 | % 47 | % 55 |

Iturria : VI. Inkesta Soziolinguistikoa 2016.

2016n Euskal Herriko biztanleriaren % 45 euskalduna da edo euskalduntzen ari eta % 55 erdalduna. Hiru lurraldeetan, alde handiak daude. EAEn herritarren 3tik bat euskalduna da, Iparraldean 5etik bat, Nafarroan 8tik bat.

Hizkuntza gaitasuna herrialdeka

| | Araba 273.100 | Bizkaia 986.000 | Gipuzko 605.000 | Nafarroa 536.000 | Lapurdi 217.000 | B.N-Zub 33.000 |
|---------------|------------------|--------------------|--------------------|---------------------|--------------------|-------------------|
| Euskaldunak | % 19 | % 28 | % 51 | % 13 | % 16 | % 50 |
| Euskalduntzen | % 19 | % 20 | % 17 | % 10 | % 9 | % 14 |
| Erdaldunak | % 62 | % 52 | % 32 | % 77 | % 75 | % 36 |

Iturria : VI. Inkesta Soziolinguistikoa 2016.

Lapurdin 2 eskualde ezberdin :

- BAB, 102.000 herritar, %8 euskaldun eta
- Lapurdi ken BAB : 115.000 herritar, %23 euskaldun.

Nafarroan 3 eskualde ezberdin :

- euskal eremuan 57.000 herritar, 61%euskaldun ;
- eremu mistoan 330.000 herritar, 11% euskaldun ;

- erdal eremuan 218.500 herritar, 3% euskaldun.

Eremu euskaldunenak dira Nafarroako euskal eremua %61, Gipuzkoa %51, Baxenabarre-Zubero %50 eta gero Bizkaia %28, Lapurdi barnea %23. Aldiz eremu erdaldunenak dira Nafarroako erdal eremua %97, BAB % 86 eta Araba %62.

Hizkuntza gaitasuna hiriburuetan

| | Gasteiz 206.300 | Bilbo 300.300 | Donostia 160.800 | Iruñea 166.500 | BAB 102.200 |
|---------------|--------------------|------------------|---------------------|-------------------|----------------|
| Euskaldunak | % 18 | % 19 | % 35 | % 11 | % 8 |
| Euskalduntzen | % 18 | % 21 | % 22 | % 11 | % 6 |
| Erdaldunak | % 64 | % 60 | % 43 | % 78 | % 86 |

Euskaltasunaren aldetik Donostia lehen mailan da (Donibane Garazi eta Mauleren onditik !), Bilbo eta Gasteiz berdintsu, BAB azken mailan.

Euskaldunen errextasuna euskaraz mintzatzeko

| | Iparraldea 250.000 h. | Nafarroa 536.000 h. | EAE 1.864.000 h. | OROTARA 2.648.000 h. |
|--------------------|--------------------------|------------------------|---------------------|-------------------------|
| Euskal elebidunak | % 21 | % 23 | % 27 | % 26 |
| Elebidun orekatuak | % 38 | % 26 | % 29 | % 30 |
| Erdal elebidunak | % 41 | % 51 | % 44 | % 44 |

Iturria : VI. Inkesta Soziolinguistikoa 2016.

- Euskal elebidunak euskaraz errexkiago mintzo : ehuneko handiena EAEn (% 27), ttipiena Iparraldean (%21).

- Elebidun orekatuak bi hizkuntzetan berdin mintzo : ehuneko handiena Iparraldean (% 38) beste lurraldeetan baino 10 puntu gehiago.

- Erdal elebidunak erdaraz errexkiago mintzo : ehuneko handiena Nafarroan (%51), ttipiena Iparraldean (% 41).

2. Hizkuntzen transmisioa

Ama hizkuntza da haurrek hiru urte bete arte familian ukan duten hizkuntza, euskara bakarrik edo erdararekin, erdara bakarrik. Erdara bakarrik 10etarik 8 haurren lehen hizkuntza EAEn eta Iparraldean, 9rena Nafarroan, hots gaztelania, frantsesa edo beste hizkuntza bat. Euskara

bakarrik edo erdararekin 10etarik 2 haurren lehen hizkuntza da EAEn eta Iparraldean.

Lehen hizkuntza edo ama hizkuntza

| | Iparraldea 249.000 h. | Nafarroa 534.000 h. | EAE 1.864.000 h. | OROTARA 2.647.000 h. |
|------------------|--------------------------|------------------------|---------------------|-------------------------|
| Euskara bakarrik | % 16 | % 6 | % 18 | % 15 |
| Euskara + erdara | % 6 | % 3 | % 6 | % 5 |
| Erdara bakarrik | % 78 | % 91 | % 76 | % 80 |

Lehen hizkuntza herrialdeka

| | Araba 273.100 | Bizkaia 986.000 | Gipuzko 605.000 | Nafarroa 536.000 | Lapurdi 217.000 | B.N-Zub 33.000 |
|------------------|------------------|--------------------|--------------------|---------------------|--------------------|-------------------|
| Euskara bakarrik | % 4 | % 12 | % 33 | % 6 | % 12 | % 47 |
| Euskara + erdara | % 3 | % 6 | % 8 | % 3 | % 5 | % 10 |
| Erdara bakarrik | % 93 | % 82 | % 59 | % 91 | % 83 | % 43 |

Lehen hizkuntza euskara bakarrik edo erdararekin Baxenabarre-Zuberon %57entzat, Nafarroako euskal eremuan %55entzat, Gipuzkoan %41entzat, Lapurdi barnean %23rentzat, Bizkaian %18rentzat, Araban %7rentzat.

3. Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera

Ikus dezagun zer bilakatzen den lehen hizkuntza. Euskaldunen tipologia 3 kategoria bereizten ditu:

- Lehen hizkuntza euskara eta orain euskaldun, hauek dira jatorrizko euskaldunak. Ez erran “euskaldun zaharrak” gero eta gazteago baitira.
- Lehen hizkuntza euskara erdararekin eta orain elebidun, hauek dira jatorrizko elebidunak.
- Lehen hizkuntza erdara eta orain euskaldun, hauek dira euskaldun berriak.

Euskaldunen tipologia lehen hizkuntza eta adinaren arabera (%)

| | 65 urte 1944 | 50-64 1959 | 35-49 1974 | 25-34 1987 | 16-24 1996 | E. H. (2016) | E. H. (1991) |
|----------------------|-----------------|---------------|---------------|---------------|---------------|-----------------|-----------------|
| Sorturtea +- 1944 | | | | | | | |

| | | | | | | | |
|--------------------|----|----|----|----|----|----|----|
| Jatorriz euskaldun | 84 | 62 | 45 | 34 | 30 | 50 | 79 |
| Jatorriz elebidun | 8 | 12 | 14 | 18 | 16 | 14 | 7 |
| Euskaldun berri | 8 | 26 | 41 | 48 | 54 | 36 | 14 |

Euskararen jatorriari begira, adin taldeen profila erregularri aldatzen ari da. Zaharretan jatorrizko euskaldun anitz dira (% 84) eta euskaldun berri oso guti (% 8). Alderantziz gertatzen da gazteenetan : herena, sortzez euskaldun (%30) eta erdia baino gehiago euskaldun berri (% 54). Tarteko adin taldeetan aldaketa erregularra ikusten da adinaren arabera : zahar eta gazteen artean jatorrizko euskaldunak gero eta gutiago, euskaldun berriak gero eta gehiago.

Mugimendu hau aspaldikoa da. 2016ko euskaldunetan erdia jatorrizko euskalduna da eta herena euskaldun berria. 1991n jatorrizko euskaldunak askoz gehiago ziren (% 79) eta euskaldun berriak askoz gutiago (% 14).

Erran dezakegu gaur egun euskararen transmisioa, familiaren bidez baino gehiago eskalaren bidez egiten dela. Jatorrizko elebidunak adin multzo guzietan gutiengoan dira, % 15 inguru 65 eta 16 urtekoen artean. Elebitasuna ere eskolan sortzen da.

4. Euskararen transmisioa familia euskaldunetan

Euskararen jarraipena familia euskaldunetan (%)

| Burasoen euskalduntasuna | Haurren lehen hizkuntza | | |
|--|-------------------------|------------------|-----------------|
| | Euskara bakarrik | Euskara + erdara | Erdara bakarrik |
| Seme-alabek 16 - 50 urte eta gehiago | | | |
| Buraso biak euskaldun : | | | |
| - Seme-alabek 50 urte eta gehiago | 75 | 9 | 16 |
| - Seme-alabek 35 - 49 urte | 84 | 7 | 9 |
| - Seme-alabek 16 - 34 urte | 87 | 6 | 7 |
| -Bana beste | 79 | 8 | 13 |
| Buraso bat euskaldun, bestea erdaldun : | | | |
| - Seme-alabek 50 urte eta gehiago | - | 27 | 73 |
| - Seme-alabek 35 - 49 urte | - | 44 | 56 |
| - Seme-alabek 16 - 34 urte | - | 54 | 46 |
| - Bana beste | - | 39 | 61 |
| Seme-alabek 3 - 15 urte | | | |
| Buraso biak euskaldun, bien lehen hizkuntza euskara | 93 | 7 | - |
| Buraso biak euskaldun, baten lehen hizkuntza euskara | 70 | 24 | 6 |
| Buraso biak euskaldun, bien lehen hizkuntza erdara | 44 | 36 | 19 |
| Buraso bat euskaldun, bere lehen hizkuntza euskara | - | 83 | 49 |
| Buraso bat euskaldun, bere lehen hizkuntza erdara | - | 17 | 51 |

Iturria : VI. Inkesta Soziolinguistikoa 2016.

Inkestatu guzietan galdegin zaie zein hizkuntza erabili duten etxean haurtzaroan burasoen hizkuntza gaitasuna kontuan hartuz. Emaitzak Euskal Herri osokoak dira eta ehun urte hurbil badira lekukotasun zaharrena eta gazteenaren artean.

Oro har bi burasoak euskaldunak direlarik %79 hiztunen lehen hizkuntza euskara da bakarrik, %13rentzat erdara bakarrik. Halere lekukoa gazteago eta euskara lehen hizkuntzaren heina handiago da (%87 gazteenentzat eta %75 zaharrenentzat) eta erdararen heina ttipiago (%7 gazteenentzat eta %16 zaharrenentzat).

Lekukoaren buraso bat euskalduna delarik eta bestea erdalduna, euskara bakarrik ezin da jarraikarazi. Orokorrean erdara bakarrik da lehen hizkuntza %61 hiztunentzat eta euskara erdararekin %39rentzat. Hemen ere ezberdintasunak badira lekukoaren adinagatik. Gazteenetan jatorrizko elebitasuna nagusi da jatorrizko erdarari (%54 versus %46). Oso alderantziz gertatzen da zaharren lehen hizkuntzarekin : erdara bakarrik %73rentzat, elebitasuna %27rentzat).

Eta zer gertatzen da 5 eta 15 urte arteko haurrak dituztenekin, hots eskolako ikasleen familietan ?

Bi burasoak jatorrizko euskaldunak direlarik euskara transmititzen da %100, % 93 euskara bakarrik, % 7 euskara erdararekin, % 0 erdara bakarrik. Bi burasoak euskaldun berriak direlarik euskara da %80 haurren lehen hizkuntza, euskara bakarrik %44entzat, euskara erdararekin %36entzat. Erdara bakarrik %16en lehen hizkuntza da.

Buraso bat euskaldun delarik, bestea erdaldun, zein da beren 3-15 urteko haurren lehen hizkuntza ? Inoiz ez euskara bakarrik. Bi kasu ezberdin. Burasoa jatorrizko euskalduna bada, haurren %83a jatorriz elebidunak dira eta %17 jatorriz erdaldunak. Burasoa euskaldun berria bada, haurren erdia elebiduna da, eta erdia erdalduna jatorriz.

Inkestak erakusten duen egoera itxaropentsua da, burasoak gazteago eta euskararen transmisioa hobeki egiten dela : 16-35 urteko seme-alabak %93 euskaldun edo elebidun sortu dira, bi burasoak euskaldun direlarik ; 3-15 urteko haurretan %100, bi burasoak jatorrizko euskaldun direlarik.

Iparraldean ere antzeko hobekuntza ikusten da : bi burasoak euskaldun direlarik lehen euskaren jarraipena %75ekoa zen, euskara bakarrik (%61) edo frantsesarekin (%15). Orain eskolierren familietan bi burasoak euskaldun direlarik haurretan %66 jatorriz euskaldunak dira, %20 jatorriz elebidunak. Beraz euskararen jarraipena %80ekoa da.

Hau guziaz familia euskaldunetan gertatzen da, dakigularik bikoteak gehiago handienean erdaldun direla. Kasu honetan euskararen transmisioa ikastolen eta eskola elebidunen gain da.

Gero beretik.

Bigarren zatia agertuko da datorren kronikan. Gai hauk aztertuko ditugu euskaren erabilera, euskarari buruzko atxikimendua, euskararen aitzinarazteko axola eta gerorako itzaropenak.

Erramun Bachoc, 2018-02-17